



Txintxarriren
1000. alea kalean
da dagoeneko

1993ko urriaren 1ean atera zuen lehen alea Txintxarri. Milagarren alea bete duen honetan, Maialen Suberbiola eta Nekane Zapirainekin bildu gara, lehen lan taldea osatu zuten bi kazetariarekin. Sebastian Kerejeta Ttakuneko lehendakari ohia ere elkarriketatu dugu, hastapenak nolakoak izan ziren jakiteko. / 4-5 eta 6. orrialdeak



Casual Blues eta White Towels taldeek kalitatezko kontzertuak eskaini zituzten Kultur Kale zikloaren lehen jardunaldian.

Ziklo berria abian

Herritarrei alternatiba kultural bat eskaini nahi dien Kultur Kale ekimena, ostiralean hasi zen

Kultur Kale ziklo berriari hasiera eman ziztaion ostiral gaueko kontzertuekin. Casual Blues eta White Towels taldeek ireki zuten Lasarte-Oriako Udala eta Xpression! Kultur Elkarreak bultzatutako ekimena. Abend tabernan izan zen lehen zita, eta jende asko hurbildu zen bi kontzertuak ikustera. Bi taldeek blues eta rock doinuak uztartu zituzten euren kalitatearen berri emanez. Otsaila eta martxorako ikuskizun gehiago dago iragarrita. •

Areto futbol taldeak ezinean

Ez da asteburu ona izan areto futboleko taldeen-iztat. Bai ISU Leihoak-ek eta bai Aldaz HK-ak ezin izan zituzten euren partidak irabazi. ISU-k Euskal Ligako Tolargi liderraren aurka galdu zuen. Kiroldegian jokaturako partidari, Ibartarren aurka 2-5eko emaitzarekin etsi behar izan zuen. Aldaz HK-ri dago-kionez, honek ere 2-0 galdu zuen etxetik kanpo Ibarra FS liderraren aurka. Oraingoan, Euskal Ligako 5. postuan kokatu da ISU eta Liga Nazionalako hirugarren mailan, 6. dago Aldaz HK. •



Ibarrako Tolargi taktikoki gailendu zitzaion ISU Leihoak-i, herritarrek partida iraultzeko arriskatzea erabaki zuten arren. TXEMA

TURISMOA /2

Behemendi
elkartea
Buruntzaldeako
turismoa sustatuz

EUSKARA /3

Udala, Ttakun eta
ikastetxeetako
guraso elkarten
arteko hitzarmena

ELKARTASUNA/3

1,8 tona jaki bildu
dira Saharako
errefuxiatuentzat

PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

MUndu bat
nahi beste aukera

ATE IREKIAK

Enpresagintza Fakultatea

Oñati OTSAILAK 18 larunbata, 11:00

Irun OTSAILAK 23 osteguna, 18:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

Donostia OTSAILAK 16 osteguna, 18:00



Buruntzaldean turismoa sustatzen

SICTED Kalitate sistemari buruzko hitzaldia antolatu du Behemendi erakundeak

Tokiko turismoa garatzeko Behemendi erakundeak sortu zuen iaz Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismoko sailburu ordetzak. Erakunde honek Donostialdeko turismoa sustatzea du helburu eta horretarako, hainbat ekintza eramango ditu aurrera. Horregatik, Buruntzaldeko establezimenduei zuzendua dagoen SICTED kalitate sistemari buruzko jardunaldia antolatu du asteazkenean, Villa Mirentxun.

Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza eta Turismo sailburu ordetzak beharrezkotzat jo zuen iaz tokiko turismoguneen garapena sustatzea. Horretarako eskualdeko erakundeak sortu zituen eta ordudanik, Donostialdean Behemendi erakundeak da lanikidetzat turistikoko hori bermatzeko duena.

Hainbat ekintza eraman ditu aurrera hilabete hauetan, hala nola, mahai politikoa, turismo mahaia eta mahai sektoriala sortu ditu eremuan.

Jardunaldia

Orain turismoarekin zer ikusia duten komertzio eta establezimenduekin hasiko da lanean.

Horregatik, Behemendik

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urmieta eta Usurbil udalerrietako establezimenduei gonbitea egiten die Villa Mirentxun otsailaren 15ean, asteazkenean, 10:00etan antolatu den jardunaldian parte hartzera.

Honetan, SICTED deituriko Kalitatearekiko Konprometuzko Programaren barruko "Praktika Onak" sentsibilitate ekimena egingo da.

SICTED sistema

SICTED deituriko Tokiko Kalitate turistikorako sistemak turismoarekin zerikusia duten establezimendu txiki eta ertainen kudeaketaren hobekuntza du helburu.

Alde batetik, sistema honek turismo sektoreko esta-



Lasarte-Oriako eta eremuko Turismo establezimenduen kalitatea bermatzeko Behemendi erakundeak jardunaldia antolatu du.

blezimenduei haien lehiakortasuna hobetzen laguntzeko tresnaz hornitzen ditu eta, era berean, helburu turistikoa parte hartzearen kontzientzia bultzatzen du enpresa hauetan.

Hau lortzeko kalitate programak 29 lanbide ezberdinentzako praktika egokien gidaliburuak ditu eta hauek ezagutzera emango dituzte

asteazkeneko jardunaldian.

Hedapen handia Estatuan

Behemendik jakitera eman duenez, dagoeneko 132 helburu turistikoko egin dira Tokiko Kalitate turistikorako sistema honetako kide estatu mailan eta 4.000 enpresatik gora atxikitu dira.

Erakundeak eskaintako datuen arabera, Euskadin 500

enpresek lortu dute SICTED sistemako adierazlea, Andaluzia eta Kataluniaren atzetik, Estatutan hirugarren erkidegoa izanik.

Honenbestez, Behemendik Buruntzaldeko establezimendu turistikoko guztiei jardunaldi hauetan parte hartu eta SICTED Kalitate Sistemaren ezaugarri garrantzitsuak zabaldu dituen die. •

Musika eskolako ikasleak ongi 7. Piano jaialdian



Andoaingo 7. Piano jaialdian parte hartu zuten ikasleak lortutako domina eta diplomekin.

UDAL MUSIKA ESKOLA

Andoaingo 7. piano jaialdia izan zen, otsailaren 4an eta 5ean, Bastero kultur-gunean. Bertan Gipuzkoa osoko 900 haur eta gazte bildu ziren eta Lasarte-Oriako Udala musika eskolako Garbiñe Arruabarrena eta M^{re} Jose Mugica irakasleen bideratze piano jole ere bertan egon ziren.

Udal Musika eskolako arduradunek azaldu digutenez, ikasleek lan ona egin zuten zilarrezko sei domina eta brontzezko hiru eskuratu.

Musika eskolaren izenean hamaika urte arteko A mailan Jaione Martos Urkizu eta Valeria Fadrique Saez-Benito parte hartu zuten; B mailan, hamalau urterako artekoan, Amaia Salsamendi Galan, Irene Carques Martin, Irene Fernandez Alonso, Maria Otxandorena Alba eta Sara Rubio Murillo.

Azkenik, hemezortzi urte baino gutxiagokoan C mailan Adriana Carcedo Martin eta Paloma Huguet Rodriguez izan ziren lehian. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen irizti-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Euskararen erabilera sustatu nahian

Lasarte-Oriako Udalak Ttakun kultur elkarte eta ikastetxeetako Guraso elkarteekin sinatu zituen hitzarmenak ostiralean

Pablo Barrio alkateak, Euskara Batzordeko lehendakaria den Boris Nogales-ek lagunduta, gure herrian euskararen erabilera sustatzeko bost hitzarmen sinatu zituen ostiralean.

Lehendabizikoa, Ttakun Kultur Elkarte lehendakaria den Tomas Arrizabalagarekin sinatu zuen.

Honen bitartez, elkarteak 2011-12 ikasturterako hitzartutako egitasmoetarako 174.371,73 eurotako dirulaguntza jasoko du.

Euskara Batzorde buruak jakitera eman zuenez, hitzartutako programak hamaika izan dira eta hiru multzotan banatu daitezke.

Alde batetik, multzo nagusia haurren eta gazteen aisialdia eskalduntzera zuzendutako programak osatzen dute: udako txokoak, gazteentzako kanpaldiak, Amaraun ludoteka, Kua-drillategi programa, etb.

Bestetik, Udalak Txintxarri aldizkaria laguntzen du diruz, eta azkenik, Solaskide-solasbide programa ere babesten du. Ekimen honen bitartez, euskara ikasten ari diren edo euskaraz hitz egiteko harreman-sareak nahi dituzten herritarrak euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonekin harremanetan jarri eta asteen behin edo bitan batzen dira euskaraz mintzatzeko.

Boris Nogalesek adierazi zuenez, "Ttakun Kultur Elkar-



Udaleko ordezkariak ikastetxeetako Guraso elkarte eta Ttakun kultur elkartearekin euskara sustatzeko hitzarmen sinadura ekitaldian.

tea arduratuko da programa horien guztien antolaketa osoa prestatzeaz, jasoleei informazioa ezagutarazteaz, behar diren langile guztiak kudeatzeaz, ebaluatzeaz eta diru-kontuak kudeatzeaz".

Ikastetxeekin ere

Bestalde, Alkateak herriko lau ikastetxeetako Guraso Elkarteetako lehendakariarekin ere hitzarmenak sinatu zituen.

Sasoeta ikastetxeko Burunzpe guraso elkarteak Mari Luz Muñoz lehendakariarekin eta Institutuko Kaxkaro guraso elkarteak Juan Jose Martín lehendakariarekin hitzarmen bana eta Landabe-

ri ikastolako guraso elkarteak Joxe Sarobe lehendakariarekin bi hitzarmen, bata lehen hezkuntzako ikastetxeko programekin eta bestea bigarren hezkuntzakoekin.

Sinadura saioan Udaleko Euskarako Batzordeak eta ikastetxeek hasiera-hasieratik, gure herriko haur eta gazteen hizkuntza-gaitasuna hobetzeko eta euskaraz hitz egiteko ahalik eta erraztasun eta ohitura gehien lor zezaten elkarrekin eskutik lan egin dutela gogoratu zuten.

Lau ikastetxeekin sinatutako hitzarmenak desberdinak badira ere, bai programetan baita dirutan ere, guztira

44.323,90 eurotako aurrekontua izango dute.

Honela, Udalak diruz lagundutako programen artean ikastetxeetako Irakurtzezin, Esazu eta Irrintzi aldizkariak, pertsonaia ezagunen bisitak, eskola-orduz kanpoko jarduerak eskalduntzako Hezitzaileek asko egin dezakete! programa, Lagunarteko hizkerarekin jolasean programa edo Ahozkotasuna eta bertsolaritza programa bezalakoak daude.

Hitzarmen hauekin, gainera, Udala eta ikastetxeen arteko harremana sistematizatu eta kudeaketa hobetu nahi dute. •

EZKER ABERTZALEA

Herri Batzarra asteartean Xirimirin

Ezker abertzaleak Herri batzarra antolatu du asteartea otsailaren 14ean, Xirimiri elkartearen.

Bertan jorratuko diren gaiak Nazio zein herrialde mailako gogoeta eta informazioa eta Lasarte-Oriako eztabaida prozesuaren zenbait argipen dira. •

GIZARTEA

Emakumeen eguna antolatzeko asanblada

Martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, asanblada bat antolatu dute herriko emakumeek bere egunaren inguruko egitaraua osa dezaten.

Lehen asanblada, otsailaren 14ean, asteartean, izango da, 19:30ean, Manuel Lekuona kultur-etxeko hitzaldi aretoan.

Lasarte-Oriako emakume guztiak bertan parte hartzera animatzen dituzte antolakuntzatik. •

AKELARRE G.K.

Sagardotegia Inauterietan

Akelarre Gazte kolektiboak Inauterietan direla eta, otsailaren 18an, larunbatean bazkari mundiala antolatu du Otegi sagardotegian.

Honetan parte hartu nahi duten gazteek Trumoi taberna izena eman eta 20 euro ordaindu behar dituzte asteazkena baino lehen. •

BIYAK BAT ELKARTEA

Bazkaria eta txangoa

Lasarte-Oriako Biyak Bat erretiratuen elkarteak gimnasia saioetan eta abesbatzan parte hartzen duten kideentzako bazkaria antolatu du, otsailaren 18rako, larunbata.

Bazkaria 13:30ean hasiko da egoitzako jangela nagusia. Bazkariaren prezioa 22 eurotako da eta interesatuek erretiratuen egoitzean eman behar dute izena.

Era berean, elkarteak gogoratzen du Irugurutzeta eta San Markos goterlekura txangoa antolatu duela otsailaren 21ean, asteartean.

Irteerako prezioa 34 eurotako da elkarteak bazkideentzat; bazkide ez direnek, berriz, 38 euro ordaindu behar dituzte. •

Bi tona errefuxiatuen kanpamenduetara

Sahar Herriaren lagunak Selkartek aurrean Euskal Karabana ia 2 tona bildu ditu Lasarte-Oria eta Añorgan. Taldeko kideek azaldu digutenez, "zehazki tona bat eta 800 kilo bildu ditugu".

Elkartearentzat pena izan da iazko bi tonetara ez iristea, hala ere, pozik daude herritarrek aste hauetan erakutsitako elkartasunarengatik.

"Ikastetxe eta supermerketuetan mantendu da janari kopurua. Baina Urbilen aurrean gutxiago bildu dugu," aipatu digute.

Karabana

Sahara Herriaren laguneko kideek adierazi digutenez, "egun hauetan Donostiara eramango dugu guztia. Bertan



Bi tona janari eta produktu batu dituzte Lasarte-Oria eta Añorgan.

Gipuzkoan bildutako guztia erbatuko da. Ostean, Bizkaia eta Araba produktuekin bat egin, kamioetan sartu eta hila-bete amaieran, Euskal Karaba-

na aterako da Saharako errefuxiatuen kanpamenduetara". Hala ere, aipatu dutenez oraindik eguna ez dago zehaztua.

Eskerrak

Honela, elkarteak eskerrak eman nahi dizkie janaria eman duten Añorga eta Lasarte-Oriako biztanleei.

Supermerkatuei Dia, BM, Eroski, Carrefour, Arsuaga, ikastetxe, institutu, Emakumeen Zentro Zibikoari eta Udalari ere bere esker ona agertzen die elkarteak emandako laguntzagatik.

Elkartasuna adierazi

Era berean, kanpamenduetan azaroan bahituak izan ziren hiruroi kooperanteak, Enric Gonyalons Mundu Bat elkarteak, Ainhoa Fernandez de Rincon, eta Rossella Urru italiarra gogoratu eta familiei elkartasuna adierazi nahi izan diete. •

Sebastian Kerejeta Ttakuneko lehendakari ohia

“Beharrezkoa zen Txintxarri sortzea”

■ 1991. urtean Ttakun Kultur Elkarteak sortu zenetik, Sebastian Kerejetak hartu zuen lehendakari lana ■ 2003ra bitartean hamabi urte egin zituen bertan eta oso gertutik jarraitzen du oraindik

Ttakun Kultur elkarteak 1991. urtean sortu zen. Ordurako, zenbait proiektu garatzeko asmoa zegoen elkartearen baitan eta proiektu horietako bat zen euskara hutsean herriko aldizkaria kaleratzea. Sebastian Kerejeta, garai hartan elkartearen lehendakariak azaldu digu nola sortu zen Txintxarri eta bidean aurkitutako oztopo eta laguntzak argitu dizkigu.

Maidar AZURMENDI

Gure herriko informazioa soilik DVko kronika eta Lasarte-Oria aldizkariaren bitartez jasotzen genuen garai hartan, biak gaztelerez" kontatu digu Sebastian Kerejetak. Beraz, euskarak herrian zuen presentzia ez zen nahikoa hizkuntzaren normalizaziorako eta "beharrezkoa zen Txintxarri jaiotzea".

Aldizkaria sortuko zela erabakita, kontuak atera behar ziren, dirua nondik lortuko zen ikusi eta proiektua pausoz-pauso garatzen joan zen. Noski lan taldea oso garrantzitsua zen eta hau osatuko zuten pertsonak bilatu behar ziren. "Gure nahia euskaraz ikasitako kazetariak topatzea zen, herrikoak eta esperientziadunak eta ez zen lan erraza izan". Taldea sortzearekin batera Ttakun elkartearen barruan Txintxarrirentzat zuzendaritza propioa sortu zen eta zeregin hau Mila Eizmendik hartu zuen.

Lehen pausok

"Ez zen erraza izan baina jende asko genuen inguruan oso gogotsu proiektua ateratzeko" azpimarratzen du Kerejetak. Lan taldeak lan asko egin behar izan zuela gogoratzen du bereziki, "ordu asko sartu eta soldata eskasak, besterik ez genuen eskaintzeko". Lehen lan talde horretan zeuden Nekane Zapirain eta Marilu Garmendia kazetariak eta publizitate arduraduna Maialen Suberbiola.

Aipagarria da Sebastianentzat garai hartan udaleko euskara zerbitzuak emandako laguntza. "Jasotako babesak hasieratik nabaria izan zen eta asko lagundu ziguten". Hasiera horretan, ezin ahaztu doan idazten zuten kolaboratzaileak edota aldizkaria banatzeko sortu zen taldetxo ere. "Argi daukat, gogotsu lagundu ziguten pertsona horiek gabe, Txintxarri ez zela aurrera aterako. Benetan eskertzekoa da egin zuten lan guztia".

Txintxarri eta Ttakun elkartearen inguruan herriko jende asko zegoen bere babesa ematen. Jendeak euskararen alde egiteko gogotsu zegoela dio Kerejetak eta horrekin batera, beti laguntzeko prest. "Mugimendu eta babes hori oso beharrezkoa izan zen batez ere hasieran proiektuarekin aurrera egiteko, ezinbestekoa".

Harrera beroa

Lehen aleak izandako harrera harrigarria izan zen. Euskaldun zaharrek ondo hartu zuten euskaraz idatzi eta irakurri ahal izatea, batez ere herriko albitseak zirelako. Herrian bestela ikusmina sortu zen aldizkariaren inguruan baita euskaldunak ez zirenen artean ere.

Etxeetan egiten zen banaketa selektiboa zen hasieran, gaur egun ezin da jakin baina garai hartan posible zen udalak zituen datuei esker, behintzat euskaldun bat zegoen familiak kokatzea. Horrela zerrenda bat burutu zen eta etxe horietan soilik uzten zen Txintxarri. "Banatzaile taldetxo bat eratu zen, hauek ere musu-truk, eta euren banatzen zituzten aldizkariak, hamabostean behin. 3.000 aleko tirada egiten zen".

Oztopoei aurre

Oztopo nagusia dirua izan zen. Aurreikusitako aldizkariaren gastuak erdia diru laguntzekin betetzea eta beste erdia publizitatearekin. "Herriko dendariak oso harrera ona egin ziguten eta euren sostengua garrantzitsua izan zen".

Bestetik, Txintxarri sortu zenean, baziren herri aldizkari batzuk Euskal Herrian baina ez eremu hurbilean, Donostia eta Usurbilgoak besteak beste ondoren sortu ziren. Kasu honetan aitzindari izan zen "Arrasate press" 1988an sor-



Txintxarri kultur-etxean aurkeztu zen egunean.

tua. Honek pauso garrantzitsuak eman zituen eta "gu haiekin ere harremanetan jarri ginen lana nola egiten zuten bertatik bertara ezagutzeko".

Erreferente faltak eragina zeukan baina azken batean, horrelako komunikabide batek nahiz eta borondatezko lana egiteko prest dagoen jendea eduki, "proiektuak diru babesa behar du eta hor dago gaitasuna eta landu beharrezkoa". Bere ustez, hasiera horretan oso jende trebea zegoen, askotan dirurik ez eta gauzak aurrera ateratzeko edozein lekutatik ateratzen zutenak. Meritu handia zuten.

Bestalde, beste garai batzuk ziren eta jendearen artean kezka nagusia aldizkaria politikoki posizionatuko zen ikustea

zen. Baina Ttakun eta Txintxarriren helburua beti izan da ideia eta iritzi ezberdineko lagunak biltzea "eta uste dut lortu genuela. Iritzi aniztasuna mantentzea zen helburua eta bereziki zaindu genuen ekimen ezberdinak antolatuz, besteak beste mahai inguruak". Jendeak dena den, borondatea zeukan gauzak ondo ateratzeko eta hala lortu zen ikuspegi anitza Kerejetaren hitzetan.

Normalkuntzarako bidean

Euskararen normalean bidea zabaltzea zuten helburu bai Ttakun baita Txintxarri ere eta Sebastian Kerejetaren ikuspegitik "euskara gehiago entzuten da eta euskara jasotzen da gure elkarbizitzako parte bezala". Normaltasun

batean hitz egiten da euskaraz egun, ezin da oraindik gaztelarekin parekatu baina aldaketa nabarmena da bere ustetan. "Euskaraz ez dakitenek bere haurrekin euskara egiteko saiakera egiten dute, harrigarria da urte hauetan zenbat aldatu den egoera".

Txintxarri bera herrian guttiz txertatuta dagoela iritzi dio Kerejetak, "herritar asko izaten da Txintxarri atera zain eta benetan oso pozgarria da lasarteoriatarren artean jarrera hori ikustea. Premiazkoa izateko iritsi da". Horrekin batera herriko euskaldun zaharrak Txintxarri esker erraz irakurtzen dute euskaraz.

Etorkizunari begira

Txintxarri jaio zenetik aldaketa asko dira, aldizkari formatuan sortu zen hamabostekari moduan, ondoren astekari izatera pasa zen eta azkenik egungo itxura eta maiztasuna hartu zuen. "Nire ustez formatu aldaketak mesede egin dio nabarmen, iritzi ezberdinak egongo dira honen inguruan baina nire ustez eramangarriagoa da orain, normalagoa, informazio aldetik ere hau da hasieratik markatutako bidea, herrian gertatzen diren gauzen berri ematen da".

Etorkizunera begira, Sebastianek argi dauka, "Txintxarri beste 1.000 ale egingo ditu, etorkizun ona izango duela uste dut". Hala ere "Interneten landu beharko du Txintxarri bere etorkizuna irakurle gehiagora iristeko. Digitalean bada ere, Txintxarri bere lekua du herrian eta izango du".

Txintxarri bezalako proiektu batek aurrera egiteko diru babesa behar du eta hor dago, lehen eta orain, gaitasuna eta landu beharrezko zereginak

Egunero

Erakusketa

RUDY artistaren MARGOEN ERAKUSKETA. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **otsaila erdialdetik aurrera.**

Astelehena, 13

Zinea

DANOK KIDE elkarteak antolatutako *Urpeko Zine Zikloaren* bigarren saioa: "Bizitzaren leihoak" eta "Mundu amaierako itsasoa" filmak ikusiko dira. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **19:00etan.** GAZTELANIAZ. **Doan**

Astelehena, 20

Zinea

DANOK KIDE elkarteak antolatutako *Urpeko Zine Zikloaren* hirugarren saioa: *Maldivas*, 20'12" eta *Pelajiar esparrua* film laburrak. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **19:00etan.** GAZTELANIAZ. **Doan**

Osteguna, 23

Zinea

OKENDO ZINEMA taldearen eskutik, OSTEGUNEKO ZINEAN



Kolorez betetako kontzertua

LASARTE-ORIAKO UDAL MUSIKA Eskolako ikasleek INAUTERIKO KONTZERTU BUFOA eskainiko dute. Musika eta mozorroak izango dira nagusi ekitaldi honetan. Txoko 2 mailako txikiak, eskolako musika tresna desberdinetako ikasleak, abesbatza eta musika hizkuntzako ikasleak oholtzara igoko dira doinu ezagunak eskaintzeko.

OSTEGUNA 16
19:00ETAN

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN

Sebastián Borenszteinen "UN CUENTO CHINO" filma ikusgai izango da. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **21:30ean,** GAZTELANIAZ. **Sarrera, 4,40 euro.**

Bakarriketa

KULTUR KALEA zikloaren barruan, MARIO SIMANCASEK bakarriketa eskainiko du. DONEGAL TABERNA, **22:30ean,** GAZTELANIAZ

Ostirala, 24

Antzerkia

MIKEL PAGADI, EGOITZ LASA ETA NAGORE ARANBURUK BODOLOGUAK antzerkia eskainiko dute. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **20:30ean,** EUSKARAZ. **Sarrera online, 5 euro eta leihatilan, 6 euro.**

Kontzertua

WASABI PROJECT taldeak jazz eta funk doinuak eskainiko ditu. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **23:00etan**

Kontzertua

METALMANIA eta DARK CODE taldeen metal kontzertua entzuteko aukera. ABEND KAFE-ANTZOKIAN, **00:00etan.** **Sarrera 10 euro.**

Inauteriak

Larunbata, 18

12:00etan, JOKO OLINPIKOEN HASIERA EKITALDIA. OKENDO PLAZAN.
12:30ean, TAPEO OLINPIKOA GAUERDI txarangarekin.
12:30ean, IKUSKIZUNAK eta haurrentzako HERRI KIROLAK. OKENDO PLAZAN.
14:30ean, BAZKARI HERRIKOIA. OKENDO PLAZAN.
16:30ean, DESFILEA herriko kaleetatik.
19:00etan, ABIBA disko jaia. OKENDO PLAZAN.
20:00etan, ERROMERIA AMALUR eskolaren eskutik. OKENDO PLAZAN.
23:00etan, ABIBA disko jaia. OKENDO PLAZAN.
23:30ean, SALDA MR DUBBIN Dj-ak funk, salsa, afrikar musika. JALGI TABERNAN.

Igandea, 19

12:00etan, EUSKAL INAUTERIAK herriko kaleetatik.
13:00etan eta 17:00etan, ABIBA tabernan inauterigiroa. OKENDO PLAZAN.
18:15etan, EUSKAL INAUTERIAK herriko kaleetatik.

Liburutegiko ordutegia



Manuel Lekuona kulturetxea

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00
eta arratsaldetan 16:00 - 21:00
Larunbata 9:30 - 13:00

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5-ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 10:45era

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz, Geltoki kalea 4.

Oharrak

EHIZA txikiko txapelketa

Buruntz-Azpi elkarteak ehiza txapelketa Buruntza mendiko magaletan burutuko da, otsailaren 25ean, igandean, goizeko 9:00etatik aurrera.

Elkarteko bazkideek, zein ehiztari federatuek parte hartu dezakete.

Lehiaketan izena emateko epea irekia dago datorren otsailaren 23 ostegunera bitartean.

Arrantza baimenak

Buruntz-Azpi elkarteak jakin arazten du, arrantza baimenak berritzeko epea ireki dela.

Baimen hori astearte eta ostegunetan arratsaldeko 19:30etik 20:30era bitartean eskatu ahal izango da Buruntz-Azpi elkarteak Basaundi bailaran daukan egoitzan.

Aktibazio muskularrari buruzko hitzaldia

Gorka Ipinza entrenatzaile pertsonalak "Aktibazio mus-

kularra kirolarientzat" hitzaldia eskainiko du.

Hitzaldia Aktibazio muskularra training enpresaren egoitzan egingo da, Blas de Lezo 2 behean, otsailaren 15ean, asteazkena, arratsaldeko 19:00etan.

Hitzaldira joateko interesa edo gaiari buruz gehiago jakin nahi dutenek, 607 797 205 telefono zenbakira deitzea dute.

Kotxeko giltzak galdu dira Urbarten

Lasarte-Oriako herritar batek kotxeko giltzak galdu zituen urtarrilaren 31a asteartean, Urbarten.

Norbaitek aurkitu baldin baditu, 616 333 017 telefono zenbakira, Pili, deitu dezala.

Tituluak jasotzeko aukera institutuan

2009-2010 ikasturtean DBH-ko eta Batxilergoko ikasketak "Lasarte-Usurbil BHI" institutuan amaitu zituzten ikasleek

dagoeneko euren tituluak eskuragarri dituzte ikastetxearen idazkaritzan. Beraz bertan jaso dezakete tituluak.

Obrak eta Hirigintza saila Ganbo kalean

Udalak gogorarazten du, Obrak eta Hirigintza sailaren bulegoak Ganbo Kaleko 1. zenbakian dagoen Udal Euskaltegi zaharrean daudela.

Marrazki eta pintura klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrazki eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela.

Klaseak Manuel Lekuona Kultur-Etxean dira asteazken eta ostiraletan 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Logo Lehiaketa

Kukuka antzerki eta dantza eskolako logoa aukeratzeko lehiaketa martxan jarri du elkarte honek.

Parte hartu nahi duen pertsona orori irekia dago, baina gehienez bi diseinu aurkeztu ahal izango ditu.

Partehartzaileek logotipoa koloretan eta txuri beltzean paperean, nahiz CD batean gordeta aurkeztu behar ditu. DIN A-4ko kartazal batean aurkeztuko dira, Kukuka antzerki eta dantza eskola etiketa jarrita.

Barnean, sobre itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak jarri beharko dira. Lanak Lasarte Oriako kultur-etxean Kukukaren izenean jarrita dagoen buzoian utzi beharko dira, 2012ko otsailaren 15a baino lehen.

Txintxarri medio bikoitza

■ Aldizkarian eta web orrialdean atal berriak sortuko dira ■ Web gune berrian irakurleen parte hartzea sustatuko da iruzkinak egiteko aukera emanaz ■ Itxura berria izango du aldizkariak

Agindu moduan Txintxarri berritu bat izango duzue laster eskuartean. Ia hemeretzi urte beteta herriko aldizkariak aldaketa asko jasan ditu, nabarmenak ale honetan ikusi ahal izan den moduan, maiztasunean eman dira baina baita itxuran ere. Aldizkari formatoarekin hasi zen Txintxarri hamabostekari moduan, orain berriz, astean bitan banatzen da eta egunkari formatuan. Erronka berriak ordea, nahiz eta paperean ere ikusiko diren, sarean daude. Web gune berri bat hasi gara osatzen eta laister izango duzue hau ikusteko aukera. Guztiz eraberritutako ezinbesteko tresna izango da aurrerantzean. Eduki berriak, bideoak eta sare sozialek hartuko dute lekua.



Maidier AZURMENDI

1.000. alera heldu da Txintxarri eta honekin batera berrikuntza garaia iritsi da.

Hamar urte dira Txintxarri "tabloide" itxura hartu zuela eta denbora tarte honetan soilik itxura aldaketa nabari bat eduki du. Bada garaia beraz, tendentzia berriei jarraikiz orraztu bat emateko gure Txintxarri.

Ale borobil honekin batera herriko aldizkarian ate bat itxi eta garai berri bati ekiten zaio.

Berehalakotasuna

Aspalditik Txintxarri aldizkariak eta txintxarri.info web guneak lasarteoriatarak informatzeko euskarri bikoitza osatzen dute baina ez berbera. Eta ezberdintasun horiek nabarmendu nahi dira orain.

Webguneak albisteak gertatu orduko sarean jartzeko aukera ematen du, sare sozialen bidez zabaltzeko eta albiste horiek gero, astean birritan argitaratzen den aldizkarian jasoko dira. Honetan beste trataera bat izango dute. Informazio osoagoak, sakonago landutakoak izango dira eta beste erreportaje eta elkar-

rizketa batzuekin batera kaleratuko ditugu.

Gainera orain arte bezala batean zein bestean herritarrentzat erabilgarria den informazioa ematen jarraituko da, agenda, farmaziak, zorion agurrak, elkarte eta erakundeen deialdi eta oharrak, besteak beste.

Informatzea helburu

Txintxarri aldizkariak bere funtzioak betetzen jarraituko du, astean gertatzen diren albiste berri eman, herritarren elkarriketa eta herriko gertaerei buruzko erreportajeak... Baina aldi berean, atal berriak sortuko dira eta itxuran ere aldaketak burutuko dira.

Iruzkinak egiteko aukera

lbilbide berri honetan, bereziki sustatu nahi da herritarren parte hartzea eta horretarako, aldizkarian kale inkestak berriz ere bere tartetxo izango du herritarren iritziak jasotzeko. Eta web gune berrian ere, albiste zein iritzi artikulu guztietan iruzkinak egiteko aukera izango dute aurrerantzean irakurleek.

Berrikuntzak ostiraletik aurrera nabaritzen hasiko dira. Ea zuen gustukoak diren! •

Interneten presentzia indartu

Txintxarri aurrean duen erronka nagusia, sarean dago. Interneten gure presentzia sendotu nahi dugu eta horretarako web berria ari gara prestatzen. Honetan albisteak, elkarriketak eta erreportajeak jasotzeaz gainera, bideoak hartuko dute protagonismoa, baita sare sozialek ere.

Orain hilabete batzuk hasi ginen twiteatzen baina laster Facebook-en egongo gara eta honetan ahal den neurrian eduki berriak aurkitu ahal izango ditu irakurleak.

Kasu batzuetan Web-a aldizkariaren osagarri ere izango da, interesa duten pertsonaien elkarriketa eta gaien erreportajeen kasuan, web-a erabiliko da paperean laburtuta argitaratu den elkarriketa osorik eskaintzeko.

Berdin gertatzen da argazkiekin, aldizkarian ikuskizun eta gertakarietako argazki asko sartzetik ez bada ere, webeko argazki galerietan aurkitu ahal izango dira Txintxarri ateratako guztiak. •



Foto depilazioa angri pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

ADURIZ DE LASARTE S.A

Solomoa baratxuritan

Odolkia- Solomo ontzutua Etxeko txorizoa

Tripakiak- Saltxitxak Basurde burua

Txistorra Baserri pateak

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Lasarte-Oria